

## Diziplinarteko ikerketa-proiektuen deialdia ikertzaile gazteentzat (2023)

### ATARIKOA

UEU 50 urte bete berri dituen erakundea da eta ibilbide luze horretan oso lan oso egin du zientzia ezagutarazteko hainbat lan-ildo sustatzen, besteak beste, ikertzaile eta profesionalen bilkurak antolatuz edota euskarazko aldizkari zientifikoak sortuz edo sustatuz.

Azken urteotako joerari erreparatuta, ikertzaile euskaldunak inoiz baino gehiago dira, baina haien arteko ezagutza urria da oraindik. Hori dela eta, UEUk fokua ikertzaile gazteengan jarri du, tesia egiten, bukatzen edo doktoratu ostean lanean daudenak bereziki. Ildo honetatik, euskarazko ikerketaren sustapena giltzarri bilakatu da UEUrentzat eta horren adierazle da IkerGazte Kongresua, euskal ikertzaileen arteko harremanak sendotzeko, ikerketarako esparru berriak irekitzeko, ikertzaile euskaldunen ikusgarritasuna handitzeko eta euskarazko zientzia-produkzioa areagotzeko balio duena.

Bestalde, Badalab hizkuntza-berrikuntzako laborategia da, hizkuntzaren eta berrikuntzaren intersekzioan kokatua. Hizkuntzatik abiatuta, bi eginkizun ditu: euskararen biziberritze-prozesuan berrikuntza txertatzea, eta berrikuntza-prozesuetan hizkuntzaren aldagaia txertatzea. Esperimentazio-gune seguru eta irekia izan nahi du, pertsonen arteko berdintasuna sustatuz.

Badalab-en helburua esperimentatzea da beraz, eta berrikuntzatik ekarpena egitea euskara etorkizunean ere erabilia izan dadin; modu horretan sustatzen baitira hiztunen artean berdintasuna, errespetua, justizia soziala eta enpatia. Helburua lortzeko galdera berriak proposatuko ditu, eta galderoi erantzuteko bilatuko ditu ezohiko lankidetzak eta egiteko/egoteko modu berriak.

### 1. OINARRIA.- DEIALDIAREN HELBURUAK

IkerGazte kongresuak dituen helburuei erreparatuta, haietako bati eraginkortasuna gehitzea da deialdi honen muina: ikertzaile euskaldun gazteen arteko harremanak sendotzea, alegia.

Horretarako, ezagutza-arlo ezberdinetako ikertzaileak elkarlanean aritzea du helburu, hau da, ikerketarako esparru berriak irekitzea bultzatu nahi du, lan-alor eta bide berriak zabalduz.

Azkenik, ikertzaile askorentzat hau izango da aurkeztu eta autonomiaz garatuko duten lehen ikerketa-proiektua eta horrek balio erantsia du ikertzaile gazteentzat, beren ikertzaile-ibilbide profesionalean aritzeko lehen aukera emango baitie.

Hori guztia euskaraz, eta euskara komunikazio-tresna nagusi dela.

## **2. OINARRIA.- IKERTALDE ESKATZAILEAREN EZAUGARRIAK**

### **2.1. Ikertzaileen ezaugarriak**

Deialdi hau ikerketaren ibilbidean hasi berri diren ikertzaile euskaldunei zuzentzen zaie, ikertzaile gazte euskaldunei, alegia.

Ikertzaile bat ikerketaren ibilbidean hasiberria edo gaztea izango da, deialdia amaitzen den epean behintzat egoera hauetako batean egongo denean:

- Gradua amaitu berria baina oraindik doktorego-tesia hasi gabe egotea (matrikulatu gabe).
- Doktorego-tesia matrikulatuta egotea.
- Doktorego-tesia defendatu berria (gehienez 4 urte) izatea.

### **2.2. Ikerketa-taldeak osatzeko baldintzak**

1. Ikerketa-taldeko kide guztiak ikertzaile gazteak izango dira.
2. Gutxienez 3 kidez osatutako taldeak aurkeztu ahal izango dira.
3. Diziplinarteko ikerketa-taldea izan beharko du eta horretarako ondorengo bi baldintza hauetako bat bete beharko da:
  - Gutxienez 2 zientzia-arlo desberdinetako ikertzaileak daudenean: Giza Zientziak eta Arteak, Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Zientziak eta Natura Zientziak.
  - Gutxienez 3 zentro desberdinetako ikertzaileak izango direnean.

### **2.3. Ikertzaile nagusi(ar)en ezaugarriak**

Ikertzaile arduradun bat edo bi izendatuko dira eta hark edo haiek gutxienez baldintza hauetako bat bete beharko du(te):

- Doktorea izatea.
- 4 urteko esperientzia ikerketan edukitzea.

Halaber, honako baldintza hauetako bat ere bete behar du(te):

- C1 edo baliokidea den euskara-maila.
- Euskarazko artikulua zientifiko bat argitaraturik izatea.

### **2.4. Aldi berean eskaera batean baino gehiagotan parte hartzea**

Proiektu batean baino gehiagotan parte hartu ahal izango da, baina ikertzaile nagusiaren ardura soilik proiektu batean hartu ahal izango da.

### **3. OINARRIA.- IKERKETA-PROIEKTUEN EZAUGARRIAK**

1. Iraupena: Ikerketa-proiektuen iraupena 18 hilabetekoa izango da, 2023ko azaroaren 1etik eta 2025eko apirilaren 1era bitartean gauzatuko da eta azken hilabetea memoria osatzeko erabiliko da.
2. Gaia: Proposatzen den ikerketa-gaiak parte hartzen duten ikertzaileen lerroak bilduko ditu, eta gai horiek gutxienez bi jakintza-arloko gaiak izango dira.
3. Ikerketa-proiektuen ezaugarri hauek baloratuko dira:
  - Egingarritasuna: Proposatzen diren helburuak egingarriak izango dira, bai metodologia eta baliabide aldetik, zein denbora aldetik.
  - Originaltasuna eta berrikuntza: Proposatzen den ikerketa-proiektuaren izaera berritzailea positiboki baloratuko da.

### **4. OINARRIA.- IKERKETA-PROIEKTUEN ESKABIDEAK**

Eskabidea honako dokumentu hauekin osatuko da:

- Ikertzaileen CV laburtuak. Euskaraz aurkeztuko dira.
- Proiektua: Euskaraz idatzita egongo da eta gehienez 6 orriko luzera izango du (Arial 10 pt, 1.25 lerroarte), ondoko atalak azalduz:
  - Izenburua.
  - Proiektuak biltzen dituen gai-lerroak.
  - Gako-hitzak.
  - Laburpena (250 hitz gehienez).
  - Sarrera, egoeraren azterketa eta gaiaren garrantzia/interesa azalduz.
  - Proiektuaren berrikuntza eta originaltasuna, diziplinartekotasunaren garrantzia.
  - Helburuak, lan-planifikazioa eta kronograma.
  - Ikerketa-taldearen osaera, taldekide bakoitzaren ardura/lanak eta lan egiteko prozedura azalduz.
  - Zabalkunderako plana.
  - Ikerketa-talde bateko kide direnen kasuan, ikerketaburuaren oniritzia.

### **5. OINARRIA.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

Ikerketa-proiektu bakarra aukeratuko da, eta 9.000 €-rekin finantzatuko da.

Finantzaketak ikerketa-proiektua estaliko du eta proiektua aurrera eramateko behar diren gastuak. Ez du izaera nominalik izango, eta, beraz, honako gastu hauek estaltzeko balio izango du, betiere ikerketa-proiektuarekin erlazionaturik baldin badaude:

- Ekipamendu informatikoa eta tresna txikiak.
- Laborategiko materiala edo material suntsigarria.
- Material dokumentala edo bibliografikoa.
- Kongresuetan parte hartzea eta zabalkunde-gastuak.
- Beharrezkoak diren bidaia eta dietak.

Eta ezin izango da erabili:

- Ordainsari edo bekak estaltzeko.

## **6. OINARRIA.- ESKABIDEAK EBALUATZEA: BATZORDE EBALUATZAILEA eta EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**

### **6.1. Batzorde Ebaluatzailea**

Ikerketa-proiektuen proposamenak UEUk izendatutako Batzorde Ebaluatzaileak aztertuko ditu eta ebaluazio-irizpideen arabera proiektuen hurrenkera-proposamena egingo du.

Batzorde Ebaluatzailearen osaketa honako hau izango da:

- Giza Zientziak eta Arteak: ordezkari bat.
- Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea: ordezkari bat.
- Ingeniaritza eta Arkitektura: ordezkari bat.
- Osasun Zientziak: ordezkari bat.
- Zientziak eta Natura Zientziak: ordezkari bat.
- UEUko zuzendaritzako kidea: ikerketa-arduraduna edo haren ordezkaria.
- Badalab-eko ordezkaria.
- UEUko lantaldeko kidea, idazkari-lanetan.

### **6.2. Ebaluazio-irizpideak**

- **Talde kide guztien curriculumak** aztertuko dira, eta atal honetan **30 puntura arte** lortu ahal izango dira. Halaber, curriculum bakoitzak 10 puntura arte jaso ahal izango du, eta hauek baloratuko dira:
  - Titulazioen egokitasuna.

- Ikerketa-esperientzia eta beste proiektu batzuetan parte hartu izana.
- Argitalpenak.
- Euskarazko ekoizpena.
- **Taldearen osaketa eta lan-banaketa** eta prozeduren proposamenak **20 punturekin** baloratuko dira, eta kontuan hartuko dira:
  - Taldearen osaketa, diziplinartekotasuna bermatze aldera.
  - Genero-oreka, gutxienez % 40ko presentzia bermatuz, bai arduetan zein osaketan.
  - Lan-banaketa justu eta orekatua.
  - Elkarlanerako metodologia eta estrategiak.
- **Proiektuaren kalitatea** baloratuko da eta **50 puntu** jaso ahal izango ditu:
  - Diziplinartekotasuna, originaltasuna eta berrikuntza-maila (15 puntu).
  - Interes zientifikoa, teknologikoa, ekonomikoa edo soziala (15 puntu).
  - Lana aurrera eramateko proposatutako metodologia egokia (10 puntu).
  - Egingarritasuna ebaluatuko da: helburuen aldetik, denbora aldetik, esperientzia aldetik (10 puntu).

## 7. OINARRIA.- PROIEKTU-ESKAERAK AURKEZTEKO BIDEA ETA EPEA

Proiektuen deialdian parte hartzeko baldintza eta betebeharrak UEUren webgunean argitaratuko dira.

Deialdia IkerGazte kongresuan egingo da eta proiektuak aurkezteko epea ekainaren 1etik irailaren 20ra zabalik egongo da.

Eskatutako dokumentazio guztia aipatutako epean eta esandako ereduetan aurkeztuko da, eta dokumentazioan hutsunerik egonez gero, 10 egun izango dira hutsuneak konpontzeko.

Eskabideak e-postaz bidaliko dira [a.latatu@ueu.eus](mailto:a.latatu@ueu.eus) helbidera.

## 8. OINARRIA.- EBAZPENA

Batzorde Ebaluatzaileak erabaki-proposamena egingo du, ebaluazio-irizpideei jarraikiz, eta proiektuen hurrenkera bat egingo du. Puntuaziorik altuena lortzen duen proiektuari esleituko zaio finantzaketa.

Onartutako eta baztertutako proiektuen zerrenda ikertzaile arduradunei jakinaraziko zaie, baztertzeko arrazoiak zein lortutako puntuazioa adieraziz.

Proiektu irabazlearen ikertzaile-taldeak 10 eguneko epean onartu edo uko egin beharko du.

## 9. OINARRIA .- LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

Finantzaketa honela banatuko da:

- % 60 proiektua hastearekin batera, 2023ko azaroan.
- % 20 urte batera, 2024ko irailean, jarraipen-txostena aurkezten denean eta haren egokitasuna balioztatu ondoren.
- Gainerako % 20a azken txostena entregatzearekin batera, 2025eko maiatzaren 2an, haren egokitasuna balioztatu ondoren.

## 10. OINARRIA.- JARRAIPENA

Ikerketa-proiektuen jarraipena Ebaluazio Batzordeak izendatutako Jarraipen Taldeak, 3 kidez osatuta egongo denak, egingo du.

### 10.1. Jarraipen-txostena.

Proiektuaren jarraipen egokia bermatzeko ikerketa-talde irabazleak jarraipen-txostena aurkeztuko du proiektua hasi eta urte batera.

Jarraipen-txostenaren atalak honako hauek izango dira:

- Izenburua.
- Taldekideak.
- Proiektuaren garapena:
  - Aurrerapen-maila, helburuen lorpen-maila, egindako egokitzapenak.
  - Azken fasearen planifikazioa eta aurreikuspenak.
- Taldeko lanaren balorazioa.

Jarraipen-txostenaren onarpena Jarraipen Taldeak egingo du.

### 10.2. Amaierako txostena.

Amaierako txostena proiektua amaitu eta hilabetera aurkeztuko da: 2025eko apirilaren 30ean.

Txosten honetan helburuen lorpen-maila eta proiektuaren ondorioak aurkeztu beharko dira.

Amaierako txostenaren onarpena Jarraipen Taldeak egingo du.

## 11. OINARRIA.- EMAITZEN ZABALKUNDEA ETA USTIAPENA

Ikerketaren ondorioz sortutako emaitzen zabalkunde eta argitalpenetan, jasotako dirulaguntzaren berri eman beharko da.

## **12. OINARRIA.- LAGUNTZA EMATEAREN BALDINTZAK ALDATZEA**

### **12.1. Ikerketa-proiektuko taldearen osaera aldatzea**

Ikerketa-proiektuen deialdi honetan jasotako baldintzak bete beharko dira ikerketa hasi eta amaitu arte. Denbora-tarte horretan ikerketa-taldean ikertzaile berriak sartu beharko balira, deialdian finkatutako baldintzak kontuan hartuta egin beharko litzateke.

Aldaketak egiteko proposamenak Jarraipen Taldeak onartu beharko ditu.

### **12.2. Jarraipen edo amaierako txostenik ez aurkeztea, edo behar den kalitatea ez betetzea**

Esandako epean ikerketa-taldeak jarraipen-txostenik aurkezten ez badu, edo eskatutako txostenak nahiko kalitaterik ez badu, Jarraipen Taldeak hartuko ditu izango diren ondorioen gaineko erabakiak.